

4 HARIRIK GABEKO MEZUA

Kiki k.-ek gizonaren aurpegia ikusi orduko, bat-batean ezkutu-ko sarreraren tapa itxi zen. Eskubeltzekoak, makurturik, tulipanen multzora inguratu ziren. Pottolok lore bati usain egin zion.

–Artifiziala da –esan zuen.

–Altxa ezazu tapa –agindu zion Idoiak–, ni jaitsiko naiz.

Zulo hau nondik nora doan ikusi behar dugu.

–Eta zerbait gertatzen bazaizu? –galdetu zuen Kiki k.-ek.

Idoiak, bere zorroa altxatuz, esan zien:

–Larriuneetarako Isolde 13 neurekin daramat.

Isolde 13 Eskubeltzek zuen uso mezularirik hoberena zen.

Idoia ezkutuko sarreraren beheara desagertu zen. Kontu handiz pasabidean zehar herrestatuz, atetxo bat zuen gela ilun batera iritsi zen. Jakin-nahi handiz begiratzen zuen ingurua, baina ezer berezirik aurkitu baino lehen, hots bat entzun zen. Azkar idatzi zuen paper batean: “Etxe barruan nago kutxa batean ezkutaturik. Goraintziak. Idoia”. Gero, Isolde 13 tximiniatik gora bidali zuen mezuarekin.

–Non ote dago Idoia? –esanez, Felixek erlojuari begiratu zion–. Badira hamaika minutu behean dela. Ezer txarrik ez zitzaioa gertatuko espero dezagun.

–Goazen! –oihu egin zuen Pottolok–. Mezurik iritsi den begiratu dugu usategian.

Laster ziren denak usategian.

–Beno, Isolde 13 hemen dago behintzat –esan zuen Felixek.

☐ Nola ezagutu zuen Felixek Isolde 13?

